

Emaztearen minbizitik sortutako literatura

Anjel Lertxundik liburu autobiografikoa egin du andrearen gaixotasunaz

«Lehenengo galdera da: Zergatik niri? Gero pasatzen da denbora eta galdetzen duzu: Eta zergatik ez niri? Momentu hori fundazionala da»

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 2012ko uztailaren 19an aldatu egin zen betiko Anjel Lertxundiren bizitza. Emazteari pankreako minbizia diagnostikatu zioten. Handik hiru egunetara, apunteak har-

tzen hasi zen. Gero dietario formal bat egiten hasi. Eta azkenean literatura egitasmo hura gorpuzten eta gorpuzten joan zen eta liburu-itxura hartu. Orain 'Zu' izenburuko liburu plazaratu du, autobiografikoa, «asmatutako oso gutxi daukana».

Sufimenduz ari da liburu, baina Erein etxeko Inazio Mujika Iraola editorearen hitzetan «ez da tristea, ez da iluna, argia eta bizipozezkoa baiziki». Lertxundik honela deskribatu du emaitza: «'Ars vivendi' ala 'ars moriendi'? Nobelak bizitzaren artea, bizitzeko gogoa, sufrimenduren erdian ere bizitza bilatzea aldarrikatzen du, eta ez etsipena. Bizitza da asmatu den gauzarik onena».

Hau ez da minbiziak jota dagoen gaixo bati buruzko kronika-liburu soila. Elaborazio handia dago, Lertxundik adierazi duenez. Hasteko, gaixoa dagoen emakumea beste izen batekin bataiatu du: Zu. «Laster hasi nintzen Zu deitzen bertako protagonistari –esan du Lertxundik–. Aparteko kalkuhurik gabe egin dako hautamena zen. Batetik, Zu esanda, 'beste' den baten izaera jasotzen nuen, 'la otredad'; ni ez naizen, baina oso hurbil daukadan norbaiten existentzia. Bestetik, Zu izen berezi gisa erabiliz, izenaren erabilerari bixi bat lortzen nuen: Zuk esan

dio, Zuren ustez, Zuri asko gustatzen zitzaien... Ez nintzen ohartu Zu horretan sartzen eta kabitzen direla emakume minbizidunak ere».

Malaletxea eta abalidura

Diagnostikoaren berri jakin eta handik hiru egunetara, hondartzara joan ziren familiako kideak. Anjel Lertxundi, itsasoa sartu eta han jardun zen olatuen kontra borrokan, itsasoa nahiko zakarra baitzegoen. «Han desahogatu nintzen pixka bat, baina gero askoz gusturago jardun nintzen etxean apunte batzuk idatziz. Hasierako malaletxeari eta abalidurari irteera bat eman nahi dio idazleak. Hasieran, apunte horiek ez dira norberarentzat, baizik aldamenean dagoenarentzat. Gaixo bati lehenengo sortzen zaion galdera da: zergatik niri? Gero pasatzen da hainbat denbora eta esaten duzu: eta zergatik ez niri? Momentu fundazionala da hori. Arazoari buelta emateko aukera zaude orain. Lehen, ate itxi bat zegoen, orain ate ireki bat daukazu. Diagnostikaturako gaitza oso larria zen, bizi-iraupeneko espektatibak laburrak zituen, eta etorkizuna oso beltz ikusten genuen hasieran, baina emazteak eta biok gaixotasuna onartzen hasi ahala, idazten segitu nuen, oraingoan, berri, gaixotasuna asumitu nahian, gaixotasunak gure bizitzan duen to-

kia ulertu nahian».

Halaxe, Lertxundi hasi zen han eta hemen arakatzen, hango eta hemengo literaturaren gaitzek, sufrimenduetan eta heriotzak duten tokia aztertu nahian. Hiru lagun izan omen ditu Lertxundik bidaide, hiruak aspaldiko irakurketetatik liburu honetara ekarritakoak: Thomas Mann, Albert Camus eta Susan Sontag. Eta beste batzuen esperientziak ere baliagarri izan zaizkio: Imanol Zurutuza, Joxe Aranzabal, Simone de Beauvoir, Sándor Márai eta Kenzaburo Oé, besteak beste. Denak ere sufrimenduz eta gaixotasunaz idatzitakoak. Jakina denez, Zurutuzak 'Errautsera arteko sugarra' publikatu zuen, non kontatzen baitzuen bere emazteak –ordurako hila– minbiziaren kontra izandako borroka. Eta Aranzabalek ere blog batean azaldu zuen bere linfomaren berri, gero liburu tankeran publikatu zuena, 'Medikuak esan dit minbiziak dudala' izenburuaren pean.

Thomas Mannen kasuan, gaztetan irakurritako 'La montaña mágica' hura izan du aztergai. «Guk, 'montaña', ospitaleari esaten genion. Eta gogoratzen ginen Xabier Letek kantatzen zuen 'Berriro igo nauzu ene mendira' hartaz ere. Camusek, berri, esan zuen filosofoaren galdera inportantea dela suizidioari buruzkoa. Eta hori, bizitza lkaragarri


El cáncer de la esposa como motor literario

Anjel Lertxundi ha publicado un libro que tiene como germen y motor la enfermedad grave –cáncer de páncreas– que se le detectó a su mujer en julio de 2012 y que lo sigue padeciendo. Ya al tercer día de recibir el diagnóstico, el escritor zarauzitarra comenzó a escribir apuntes, al comien-

zo como «una manera de dar salida al cableo y al abatimiento», pero luego empezó a elaborar un dietario y al final decidió dar forma de libro a los materiales. El libro está muy lejos de ser una simple crónica de la enfermedad; el escritor ha elaborado muchos los textos y además ofrece continuas reflexiones sobre lo que va ocurriendo, en ocasiones a la luz de lo expresado por otros literatos, sobre todo por Thomas Mann, Albert Camus y Susan Sontag. Lertxundi leyó 'La mon-

taña mágica' de Mann siendo joven, y le marcó. En la presentación de ayer, el narrador hizo un canto a la vida: «En la novela se reivindica el 'ars vivendi' frente al 'ars moriendi', el arte de vivir, el de buscar la vida en mitad del sufrimiento. La vida es lo mejor que se ha inventado».

En la narración utiliza un recurso literario peculiar: impone a su mujer el nombre de Zu (Tú), lo que le permite bastante juego, «y creo que ese Zu puede englobar a las mujeres con cáncer».



Anjel Lertxundi, atzo
Donostiako Parte
Zaharrean, liburu berria
besapean duela. :: ARIZMENDI

maite zuen gizon batek esana».

Susan Sontag baliagarri izan zaio, batik bat, gaitzen inguruko metaforizazioaren aldetik. «Guk ere, gaitzari 'bitxoa' eta 'putakumea' esaten genion». Kenzaburo Oé-ri ere erreparatu dio: «Semea izan zuen autista. Hura onartu ezinik, infernairaino jaitsi zen, beti duintasun bila». Lertxundiri ez zaio gustatzen «minbiziaren erabilera baldar hori, adibidez esaten dugunean ustelkeria kantzer bat dela. Zer esan behar du minbiziaren duenak?»

Aitortu du liburu autobiografikoa dela: «Ezagutzen gaituenak arrasto autobiografikoak bilatu nahiko ditu liburuan. Liburuan emanak daude, simulazio gutxi dago. Ez da erraza izan eta ez da erraza izaten ari: aitortza egitea erabakitzen denean, narrazioak diskrezio-faltaren ibaiertzetatik korrontean egiten du bere nabigazioa». Liburuko eszenak gertatuak omen dira, «baina ez dira inolaz ere gertatu ziren bezalakoak, ez dira dokumental bateko irudiak, gerora erakitakoak baizik, eszena bat baino gehiago gertatutako egunean idatzia badago ere».

Eta izaera autobiografiko horrek bere isla izan du obraren egiturari: «Obrak autorearen bizi-esperientziatik hartzen baldin badu amasa, au-

torearen gorabehera intimoetan jartzen baldin badu fokoa, narrazioa fragmentatu egiten da, zatitu, kolpeka funtzionatzen du, sentimenduen ziztadak flash moduko batzuk dira».

Liburuan zehar «asmatutako oso gutxi dago». Hala ere, «imajinazioak eta errekreazioak ere badute bere tokia, eta liburuak asko zor dio narratzailearen memoriari ere, eta hori guztia, gainera, hausnarketaren galbahean iragazita dago».

Idatzi ahala, tarteka materialak erakusten zizkion emazteari, zeina gaixorik jarraitzen duen. «Liburua nirea da, baina zehaztasuna bilatu dut, eta adibidez beraren fedekon-tu batzuk aipatu nituenen erakutsi egin nion». Minbizi hitzari buruz ere jardun da idazlea liburuaren aurkezterakoan. Orotariko Euskal Hiztegiak dioenez, XVIII. mende erdiaz geroztik dago dokumentatua. «Min gaixtoa» esan izan zaio, eta ematen

du hor halako karga moral bat da-goela, zerbait txarra egin duenari etorriko balitzaio bezala».

Eta aurkezpena Bernard Shawen aipu batekin bukatu du: «Bere buruz eta bere garaiaz hitz egiten duenak, mundu osoaz eta garai guztiez hitz egiten du».

Bestalde, Erein etxeko editore Inazio Mujika Iraolak gogoratu du ez dela lehenengo aldia Lertxundik sufrimenduari buruzko literatura egiten duena: «Aspaldiko 'Hamasei-garrenean aidanez' hartan, protagonista nagusia ez da Domingo, baizik eta haren emaztea, 'ezin hilez bizi-rik' dagoen emakumea. 'Paper festa-n ere idatzi zuen sufrimenaz. 'Azkenaz beste' eta 'Zoaz infernura lastana'-n ere emakume protagonis-tak ditugu».

«Hau ez da autolaguntzako liburu-a, baina lagunduko dio irakurleari, pasa baldin bada trantzetik, eta pasa ez bada ere bai», gaineratu zuen Mujika Iraolak.

Lertxundiren beste obra askotan bezala, azala Antton Olariagak egi-na da. Oso aspaldiko lagun eta lan-kideak dira.

Anjel Lertxundi (Orio, 1948) li-teratur genero guztiak landu ditu, poesia ta antzerkia izan ezik. Obra ugari idazlea da eta 2009ko 'Eskar-mentuaren paperak'-i esker Saiake-ra Sari Nazionala irabazi zuen.

ZU
ANJEL LERTXUNDI
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 279.
Prezioa: 19 euro.

**«Gaixotasunak
gure bizitzan duen
tokia ulertu nahian
idatzi dut»**